

Kalikle

K.a. 400. urte inguruan bizi izan zen. Atenako aristokrata eta Sofisten artekoa. Hauen lege naturalaren eta konbentzionalaren arteko bereizkuntzari eusten zion. Benetako eskubide naturala, ordea, indartsuarena zela uste zuen, eta ez hiri-legeek ezarritako sasieskubidea.

Kant, Inmanuel

Königsberg-en jaio zen 1724ean eta bertan hil 1804ean.

Langile apal baten semea. Errusia-rekin eta Finlandia-rekin ia muga egiten duen Prusia-ko hirian, eta bertatik irten gabe, bizi izan zen laurogei urtetan. Hala ere, garai hartako munduko gertaera nagusienak nahiko ondo jarraitzen zituen. Frantziako Erreboluzioaren eta Estatu Batuetako independentzi zale porrokatua zen eta zientzietan ematen ziren aurkikuntzetara adi zegoen. Filosofia-ko gaiak ezezik, matematika eta geografia fisikoa ere irakatsi zituen. Gizon txiker eta herbal haren buruak mundu guztiko informazioa prozesatzen zuela zirudien. Tamesis inguruko geografiaz ihardun behar zuenean, han bertan ikasi eta bizi izan balitz bezala mintzatzen zen.

Luteranismoan eta pietismoan hezia izan zen Kant. Bizitzako egintza guztietan metodiko hutsa zen: eginkizun guztietarako ordu eta leku jakinak zituen eta ez zuen hutsegingo sekula ere. Bizimodua aurrera ateratzeko zailtasun asko gaingitu behar izan zituen. Nahimén trinkokoa, saiaturia, bere buruari opa ziona lortu arte ez zuen etsiko. Obrak: Kritik der reinen Vernunft, 1781 (espainieraz itz.: Crítica de la razón pura, 1787); Kritik der praktischen Vernunft, 1788 (espainieraz itz.: Crítica de la razón práctica).

Ik. Kritzismoa.

Kapitalismoa

Produkzio-bideen jabetza pribatuan oinarritzen den burgeseriaren gizarte-antolaketa ekonomikoa da, langileak ustiatzen dituena. Feudalismoaren garaia gaingiturik, burgeseriak indibiduoaren eskubideak eta, halaber, aurrerapen soziala eta ekonomikoa aldeztu zituen. Produkzio-kondizioak eta burgeseriaren interesak mantentzeko, Estatu burgesa sortu zen. Proletalgoak, ez du askatasunik eta eskubiderik ezagutzen eta, lanez eutsi behar dio Estatuari; honi Estatu kapitalista deitzen zaio.

Ik. Marxismoa.

Karma

India-ko filosofi eskoletan, Txarvaka eskolan ezik, funtsezko kontzeptua da.

Sanskritoz "egintza" adierazten du; giza egiteen "jalkina" eta "hazia" bezalakoa da, *atman edo "ni" banakakoaren *transmigrazio-patua determinatzen duena: zehazkiago esanik, arima berrarragiztuaren bizierako kalitatea determinatzen du.

Kontzeptu metafisikoa eta etikoa da karma. Kausaren eta efektuaren arteko lotura esan nahi du, orokorki harturik; baina, bereziki, giza egiteen kausalitate-legea adierazten du. Edozein giza egitek eragin edo ondorio automatikoa du berrarragiztapen-prozesuan.

Karma nolabait atman partikularren bizialdi-prozesuaren azpiko lege transzendentea da: lege horren arabera, gaur guri dagokigun guztia historian zehar gertatu diren kausa-katearen ondorioa da.

Baina lege transzendentea izateak ez du gizaki bakoitzaren erantzukizuna kentzen: bere egiteen eta egite horien ondorioen erantzule bait da gizakia, oraingo bere egoera bere aurreko bizialdietako egiteen ondorioa den bezala.

*Budismoa eta *hinduismoa, filosofi eta erlijio-sistema direnez, karmak ezartzen duen bizitz lege hori argitzeko eta karma txarretik libratzeko bideak dira, horrela bakarrik aska bait daiteke atman-a transmigrazio-kateatik ere.

Baina karma ez da norbanakoaren "historiari" dagokion legea bakarrik; eta bai taldearen historiari dagokiona ere: familiari, herriari, elkarteari, gizadiari.

Alde honetatik badu kideetasunik jatorrizko bekatuarekin, honen interpretazio sozialari eta historikoari bagagozkio behintzat.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Hinduismoa; Indiar filosofia.

Karneade Zirene-koa

K.a. 214. urte inguruan jaioa, Akademia Berriko eskolaria izan zen 156tik heriotza arte (129). Erromak Atena-ri ezarri zion zigor bat zela eta, Diogene eta Kritolao-rekin Erromara bidalia izan zen. Honela, greziarren pentsamenduak ikaragarritzko eragina eduki zuen erromatarren artean. Arzesilao-ren jarraitzailea eta dogmatismo guztien aurkakoa, Karneade-k batez ere patuari buruzko estoikoaren doktrinaren aurka jokatu zuen.